

BIZKAIERAREN ORBIZTEA.

“Landarak orbiztu e(g)iten dire, orriz jantzi, eta gaixoa pa-seu ostian meko-meko da(g)oena bere orbiztu e(g)iten da, osasuntsu paretan da”. Adela Bilbao Larrondo, 1999-04-17.

Norberak gogoan darabilzan hausnargaiak *Karmelen* mailako plaza agirietara kanporatu behar diranean, arterik erdi narbar zana argitu beharra egoten da. Gaurko euskalkiaren gai honeri be emon beharko jako egunen baten konponbide osoa, euskeraren mundukook erregistroen desegituraketa honetan jarraitu ez daigun. Euki proposamenak badaukaguz, baina so-loa goldatuko daben idien aurretik, itaurrean erabiliko dan filosofia, pentsakera sortu beharko da. Hori bai, ondarroatarrok esaten deuskuzuenez *kabratan e(g)on ba(r)ik*. Bitartean, adabuak josteari ekingo deutsagu, saio literarioetako tankeran landuz.

Irakurlea Mungian jaioa balitz, bapere ahaleginik ez leuke beharko egunen barruan beragaz berbaz dabiltzanak zein herritakoak diran igarteko. *Astó* badino Gatikaldekoa, edo *beixé* Gamizekoa. Berak, barriz, *beie* eta *astoa* esateari jarraituko leuskio. Azken baten, irakurle hori hiru-lau berbakerak inguratuta bizi da inongo arazo barik. Zentzu honetan, Euskal Herriko mikroatlas linguistikoa dauka inguruan.

Diafragma zabalduko baleu bizkaieraren lurretara, ezelako ahaleginik barik jakingo leuke aurrean daukan solaskidea Bermeokoa dan, Eibarkoa edo Ondarroakoa. Urruntxuago jo ezkerre, gipuzkera egiten dauan edo iparraldeko euskara dan be bai. Eta gure egunotako portaera hau holantxe ezagutu da aspaldietan.

Mende goieneko haize europarrek baina, eroan daroa geldiro-geldiro etxe inguruko berbakera, urruntxuagokoa ekarriz. Egia esateko, atxinetxutik dator jokera hau, ia hogeita hamar bat urterik hona, gitxienez. Eta guri –Euskal Herri zabalean bardintsu dan fenomenoari- jagoku erantzun egokiaren bila ekitea.

“Mendebaldeko eta ekialdeko euskaldun aunitzek urradura mingarri baten gisara bizi dute euskalkiaren eta estandarraren artean aukeratu behar beltz hori” (Aingeru Epaltza, Mendebalde 3, 1999). Nafarroatik zuzentzen jakun ideia horrek erakusten deusku behin ahozko euskaratik gora hasten garanean –geurea bazterrera laga gura ez badogu- atazan gagozala, ardurari, konponbide sustentzizkoa topatu arte. Gertatzen jakuna da, benetan hortxe daukagun euskalkia lokalegi gelditu jakula mundu moderno eta anitza azaltzeko tresna baliagarria izan daiten. Euskara batua, bestalde, edozertarako prestatze ahaleginetan darabilgu, aitatu dogun mundu modernoari erantzuteko gaitasunez. Zoritxarrerako, euskararen barruko aniztasuna batzeko zan estandar horrek ez dau uste genduan modura batu.

Gipuzkerazko euskalkiko diran neure adiskide eta lagun bihotzekoak, behin baino sarriagotan itaundu deuste ea zertan ez deuston euskera batuak aniztasunari erantzun edo beste berba batzutan ea zer dala eta hasi behar dogun altura honetan bizkaiera gora eta bizkaiera behera. Nire erantzuna izaten da, ea eurak zergaitik ez diran hasten gipuzkera sakontzen, ze euren artekoen gaurko jarduna lehentxoagoko euskaldunakaz alderatuko balebe, berez-berez ohartuko leitekez zalditik asto-

rako jauzia dagoala. Azter daiea, zenbat elementu ertzetako euskalkietako estandarrean erabilgarri dana alde batera ixten dan. Entzun dagiela egun bakan batez baino ez bada Euskal Telebista zein Euskadi Irratia, koadernua eskuan, ea zenbateko kopuruan darabileen gipuzkera eta zenbatean euskara estandarra. Beharbada orduantxe hasiko leitekezala apurtxu bat bizkaierakook ulertzen. Dinodana ez dinot esateagaitik, jarraiko testua Pablo Sastrek *Euskaldunon Egunkarian* idatzia da: "Ertzetako eskualdeetako edo euskalkietako idazleek gipuzkeraren nagusikeria salatuz ezin egonezko eta errebeliozko hitzak esaten dituzten bakoitzean, min definigaitz bat sentitzen dut nire baitan, ageri baita opresoreen alderdikoa naizela". Nire ustez, euskararen indarrak ubideratu barik, euskalki guztiek gipuzkerak adina azpieuskalkiko elementu sartzen hasi ezker, euskara batua bera be ulergatx gertatu leiteke. Kontua ez da erruak, hutsak edo akaskileak bila hastea, hazi egin dan euskal mundua euskara estandar, euskalki eta azpieuskalkiak dagokien funtzio, erregistro ahozko-idatzietan Euskal Herri osorako arautzea baino, hau da, hasieran aitatu dogun euskeraren mundua egituratzea.

Nondik edo handik, euskalkien arazoak danok harrapatzen gaitu, nahiz eta ez modu berean. Gipuzkerakoei gainbegiratu egin eta gero Nafarroara joango bagina, beste egoera bat topatuko geunke. Nafarrerak ez dau inoiz literatur euskalkirik gorpuztu. Hori dala eta, Iparraldeko edo bizkaierako idazleen aldean soltura handia sentitzen dau Nafarroan diharduanak. Nahiko deritxo euskara estandarrari ikutu edo kolore honenbestekoa ixurtzea asaskatuta gelditzeko. Ez dauka beharrianik -euskalki literarioa dala eta dinot ze lekuan lekukoaz arazo beretsua daukee eta-, guk darabilgun zalantza barrabanaren aurrean ibiltzeko: noz bizkaiera, noz estandarra.

Iparraldean, 1968an Euskaltzaindiak batuaren eredia ezarri ebanetik, "Hogeita hamar urte beranduago, eredu hori ere, jendeen mihipeetan lerratzen dela ikusten ahal dugu, irratia behatzen, astekariak edo literatur ekoizpenak irakurtzen baldin

baditugu. Batuaren ereduak bi gauzatarako balio izan du: lehenik, iparraldean ahantzixekak ziren hitzen berriz erabiltzen hasteko, hala nola “ekoizpena” “produkzioa”ren ordeaz, eta bigarrenik hegoaldeko euskarak espainoletik harrapatzen dituen hitzen hemengaindi hedatzeko. Ikastoletako ikas-materialen bidez demagun. Egungo egunean, iparraldeko euskaldun batek hizkuntza mailan “jantzia” agertu nahi baldin badu hegoaldeko eleak ezpaineratuko ditu, etxekoei ihes eginez. Duela hogeitazabaldiago zen joera hori emeki-emeki ahultzen ari dela ere ohartzekoak gara”. (Itxaro Bordak, Mendebalde 3, 1999).

Euskalkiak euskalki, batasunak batasun, “Egunen batean hazi beharko dugu neurtzen euskalki marrek –aduna harro horiek- egiten duten kalteordainaren zenbatekoa”. (Iñigo Aranbarri, Mendebalde 3, 1999) dinoskuenean zeozergaitik izango da, eta euskara batuaren aurrean entzuten diran kexak entzutearena be bai. Inok ukatzen ez dauana da, baztertutokoa edo galdukoa eskuratutoko sasoi heldu dala, bai Auspua sailan Aita Zabalak batu dituan edertasunak zein Labayruen argitalpenetan eskeintzen jakuzan bitxi ugariak, ahaztu barik inguruan bizi doguzan euskaldun betiko imitagarriak.

Bizkaieraren jorran lan aberatsak burutu dira aspalditxuan. Nahiko da horretarako, Iñaki Gamindek eskaintzen deuskun zerrendari begia luzatzea. Euskal azentu eta intonazioari bakarririk begiratu ezkerok, bizkaieraren ganeko ikerketak ugari dirala konturatzen gara. Azkue handiak eginekoari gehitu geunkiozanak asko dira zorionez: Basauriko euskara, Jon Arretxek; Gernikakoa, Basterretxea,J; Lekeitiokoa, Elordieta, G.k eta beste batzuk; Iurretakoa, Errazti, Albertok; Zeberikoa, Etxebarria, J. M.; Zornotzakoa, Etxebarria, J.M.; Urdulizkoa, Gaminde,I.; Gatikakoa, Gaminde, I.; Bermeokoa, Gaminde, I.; Elantxobekoa, Gaminde, I.; Munitibarkoa, Gaminde, I.; Bakiokoa, Gaminde,I.; Ondarroakoa, Hualde, J.J.; Getxokoa, Bilbao,X. Eta Hualde, J.J.; Oñate-Arantzazu, Izagirre, K.; Elorrio; Jansen, W. A.; Eibar, Laspiur, I.; Sopela, Markaida, B

eta beste batzuk; Bergara, UNED-Bergara; Fruiz, Uriarte, J. A.; guzti honei Gotzon Aurrekoetxeak eta Euskaltzaindiko Atlas Linguistikoa batu eta aztertuak, ahaztu barik, Mendebalde osoaz Iñaki Gamindek, Holmer, N. M. eta J.J. Hualdek egina.

Dana dala, landuak landu, -egon arren idatzi dauanik Hegoaldeko euskalkiez jakin beharrekoa behin honezkero badakigula-, nik uste dot oker handi barik baieztatu daitekeala, azentoaz, perpausaren barruko ordenaz eta abar hutsune agiri-koegiak daukaguzala. Horrexegaitik luzatuten deutsegu gure deia ikertzaile barri gazteei.

Ganera, Oskorriren *Katuen Testamentue* eta Hiru Trukuren baladakaz mendebaldeko euskarak jaso egin dau duintasuna, testu zaharretan ekoizpen modernoa atonduz.

Beste alde batetik, zelan ahaztu *Karmel* aldizkaria sortuz don idazleen eskola, halan ikerketan nola erabileran oinarritua! Irakurtzea baino ez dago 225. zenbakia Frai Bartolomeri eskainia: "Hain zuzen ere, haren sermoi eta hitzaldiak, berberak liburuetan argitaratuak, dira oraingo Karmel aldizkariko argitalpen honen xedea,..." dakar editorealean. Baita beheragotxoago dakarrenagaitik be: "une honetan Frai Bartolomereren idazlan guztien edizio kritikoa argitaratze lanetan bete-beterik sartuta gaude". Parte hartzen dabenen taldean gerizpe handiko hamar idazle. Hori guztia da aitagarria.

Mendebalde Kultur Alkarteak be ekiten deutso bere zereginari. Aurten hirugarren jardunaldiak antolatzen ditu, *Euskalkiaren lekua literaturan* gaitzat hartuta. Ez dira faltako, txostenen liburua, karpeta, triptiko, diploma, oroitidazkia. Jardunaldien inguruan telebista-irratietako alkarrizketa, artikulua eta eretxi emote ugari izango da. Euskara batuko lehen belau-naldi, bigarren zein hirugarreneko idazle eta aztertzailek eza-gunenetarikoak hartuko dabe parte: Adolfo Arejita, Luis Baraiazarra, Andres Urrutia, Andolin Eguzkitza, Xabier Kaltzakorta, Xabier Amuriza, Miren Agur Meabe, Lourdes

Unzueta, Ana Urkiza, Itxaro Borda. Aingeru Epaltza, Iñigo Aranbarri eta Edorta Jimenezek.

Daukeen eraginagaitik gogoan hartu beharrekoak dira, astero-astero edo hamabostero kazetaritzan bizkaierari makurturik mendebaldeko herbak eta plazaratzen dabezanak: Maribi Unamuno, Andres Urrutia, Xabier Oleaga, Josu Lartategi edo Xabier Amuriza adibiderako. Baita bizkaieraren lurretatik haragoko idazle handiak bere: Arkaitz Cano, Koldo Izagirre eta beste batzuk. Jokabide horrek bizkaieraren orbiztea ekarteaz ganera, euskara osoa be itzelean janzten dau eta aberasten.

Aitatukoari zelan ez gehitu Labayruk urteetan bizkaierari emon deutson abaroa eta sakontasuna, edo gaurko neska-mutilengan hain eragin baikorra sortzen dauan bertsolari gazteen mobida errimatua! Eta aitatu barik itxi neikezan pertsona zein erakundeen zerrendaz hutsik egin ez daidan, *Eleiza*, *Kili-Kili*, *Bizkaia Irratia*, *3000 Hiztegi*koak..., eta abar jarriko dot.

Halan eta guztiz, bizkaieraren erabilerak, bizkaieraz ibilteak, hidegurutzeak aurkitutea be badakarsku, eta geldi egonean hartu beharrik ez egoan erabakiak hartu beharra. Mendebalde Kultur Alkartearen erako taldeetan bateratsu jokatu gura da, adostasunean, ze euskera estandarrerako sartu diran indarrak euskalkietarako be erabili ezik, azkenean bizkaiera baino nork bere ideolektoa erabiliko leuke. Hartu daitekezan bideen artean alde handiko bi ipiniko dodaz adibiderako: Juan Bautista Bilbao "Batxi"ren *Hau mundu arrano hau* rako hartu dana eta Labayruk *Idatz & Mintzen* darabilena edo Gozategi neba-arreben *Emoistazu mosutxue* abestikoa. Jokabide garanduotan jokatu ezkerro, -horrexegaitik komenidu da Labayruren urteetako beharretik aurrera jotzea-, euskera batuan bizkaieraren ekarria gehitu gura danean be batasun barik jokatzen da. Ondorioz, prestigiorik eza dator, batetik, eta estandarrera baturik aurkeztuten danak irabaztea.

Dinosku Iñigo Aranbarrik (Mendebalde 3, 1999) "Aingeru Epaltzaren *Tigre ebizan*-en; Edorta Jimenezen *Atoiuntzia*-n

edo Itxaro Bordaren Amaia Ezpeldoiren abenturetan egiten den euskalkien erabilera sinesgarritasunari begirakoa bada ere, karakterizaziozkoa, ez da inondik ere kostunbrismoan erortzen. Erregistro nagusiak du errua. Kode modernoa da. Bada hor beldur gabe ibiltzea merezi duen bide bat. Hala erabakiz gero, uste dut etxetik ezagutzen den euskalkiaren ahozko erregistroa presente edukitzeak oso laguntzen diola idazleari honetan". Edorta Jimenezek bizkaierari esparru barria aurkitzen deutso literaturan; Aingeru Epaltzak lapurtera kutsuko estandarriari, bizkaierari, Behe Errobiko behe-nafarrerari eta gipuzkera kutsuko estandarriari". Gerotxuago dino, "Tigreak" (...) aski saritua eta aipatua gertatu bada, euskalkiez egindako erabilera bereziari zor omen zaio, bertzeak bertze". Halan da ze, lortzea ez jagoko bizkaierari bakarrik, euskalkiak dira bizibarritan.

Euskaldunen bat berbaz dabilenean –dala telebistan zein irratan-, Mungiakoari gertatzen jakon antz-antzera jako gertatuten, batuan badabil be ezin eskutatu leike zein euskalkiren substratu dagoen azpian. Igarriko jako lapurterakoa bada, edo Beterrikoa. Ostera, bananka joan jakuzan batasuneko urteetan, idazlerik gehientxuenak Donostian bizi balira moduan idatzi izan dabe, eta bizkaierakoak Sarako Eskolako bailiran. Eta orain azken urtetxu batzuetan, eztarian egoan euskalkiaren indarra itogin indarrez bada be sartzen hasi da. Burumina dator-ku, merkatuan, mass-median nahiz erakundeetan agintzen dabenen ohituren aldetik, ze jokabide ugari inoren baiespenik barik bada be lege bihurtu dira, euskera batua zer dan lehen unc honetan baino hobeto jakin bagendun moduan.

Euskalkien azken urteotako eragina eta doitasunik eza, erabilerak gora egin dauan neurrian heldu da. Bizkaierakook, esate baterako, ez dogu onartu izan batutzaileak bizkaierako hamaika aberastasuni ezikusia egitea –*berba*, *neba-arreba*, *etorri dator*, eta abar, edo batzen bada terminoaren albotxoan (bizk.) ipintzea-, hau da, bizkaiera altxor preziatu zala esan arren aintzat ez hartzea, baina zabaltzaile beharretan hasi gara-

nean, bizkaiera literarioa eta euskara estandarrean bizkaierako ekarria merkaturatzen hasi garanean -talde modura esan gura dot- hizkuntza gizarte-gertaera danez, bariedade historiko eta sozialei erantzuteaz ganera bariedade edo aldaki geografikoei erantzuna aurkitu beharra ikusi da. Zuberoatik be bardintsu berba egiten deuskue: Hegoaldeko sortzaile literario anitzentzat iparraldea, hizkuntz altxorra da, erreserba linguistiko gisako bat, den-mendreko aldaketak ukatzen zaizkiona, euskara batuaren onetan noski". (Itxaro Borda, Mendebalde 3, 1999).

Halako giroan zuzendu geuntson "Euskal kultur munduan dihardugun lagun batzuk" zortzi puntuko dokumentua 1993ko apirilaren 23an Euskaltzaindiari. Lehenengo hirurak holantxe ziran:

1.- Bat etorri gara orain arte euskaldun gehienok euskara batuaren hasierako filosofiarekin, hau da, erdiko euskalkien inguruan -gipuzkera, lapurtera eta nafarrera- gainerako dialektoak horien osagarri zirelakoan. Horrexegatik txunditurik uzten gaitu azken urteotan dakusagun jarrera berriak, hots, inguruko euskalkiei euskara batutik baztegarri erizteak.

2.- Euskara batuak euskaldunen gogo-bihotzak erakarriko baditu, hor guztiok geure jaioterriko emaitzak ere ikusi beharko ditugu, euskalki konkretu, gainerakoen orde, huts-hutsik ezarri gabe.

3.- Euskara batuak, hortaz, oreka gorde behar duela iruditzen zaigu, gauza batzuetan amore eman beharrak aldean besteengandik ere antzeko portaera kidea dakarrela ikusiz, euskaldunon arteko harremanak sendotzeko. Utzi, noski, guztiok zerbait egin beharko dugu, baina ezinbestean galtzen dugunaren parean zer nolako irabazia egiten dugun nabariro agertu ezik, gaitz izango dugu orderik gabeko galerak onartzea.

Esan leiteke bazterratako euskalkietakook kontradizio hone-tan bizi garala: alde batetik, edozein euskaltzaleri eskatzen jakon lez, euskaldun eragile izateko, euskararen alde jokatzeko eskatuten jaku, bestetik gure berbakera ez da batasunaren foro

erabakigarrietan egoki hartua. Pentsatzekoa da kontsumatzaile huts moduan baino ez gaituela gura. Eta halan ez bada beren-beregi jokatu be, susmorik txikerrenak eurak be uxatu beharrekoak dira, bihotz-mihinak irabazi daiguzan.

Behin honezkero, argi-argi dagoala uste dot, Euskaltzaindiak euskara baturako araurik garrantzitsuenetarikoak onartu dituan arren, danon euskararik ez dogula izango euskalkiak integratzea guztion artean berbatu arte.

Juan Luis Goikoetxea Arrieta.
1999-05-08.